

XXIX DOMINGO DEL TIEMPO ORDINARIO (B)
DOMUND 2009
“La Palabra, luz para los Pueblos”

MONICIÓN DE ENTRADA

Nos reunimos en torno a la mesa del Señor resucitado. Él nos reúne junto a sí como hermanos y hermanas fijándose con especial amor en los pobres, los humildes y afligidos

La celebración en este domingo del DOMUND refuerza esta mirada universal de la Iglesia ya que su lema, “La Palabra, luz de los Pueblos”, nos hace comprender que Cristo quiere hacerse presente en todos los pueblos con su Palabra. Fieles a su mandato y con la fuerza del Espíritu, transmitimos entre las personas y los pueblos la Buena Nueva del Reino de Dios, con palabras y obras, a lo largo y ancho del mundo y de la historia

Escuchemos su Palabra y sepamos escuchar la llamada de Dios para ser sus testigos en medio de nuestro mundo.

ACTO PENITENCIAL

Dios quiere que todos los hombres se salven y lleguen al conocimiento de su Hijo; en Él ponemos nuestra fe y nuestra esperanza:

- Hijo de Dios, que te compadeces de todos. *Señor, ten piedad.*
- Salvador del mundo, que das tu vida en rescate por nosotros. *Cristo, ten piedad.*
- Señor resucitado, que iluminas a los pueblos. *Señor, ten piedad.*

MONICIÓN A LAS LECTURAS

Dispongámonos a acoger la Palabra que Dios nos dirige personalmente a cada uno de nosotros y nosotras. Ella es “luz de los Pueblos”, es decir, hace comprender cómo las aspiraciones y deseos que hay en el corazón de cada ser humano y de cada pueblo alcanzan pleno cumplimiento en Cristo, la Palabra hecha carne. Hemos recibido la luz de la fe en el bautismo y escuchamos la Palabra de Dios en cada celebración litúrgica; por eso, somos responsables de que esta luz llegue a todos los hombres y pueblos en su camino histórico hacia Dios.

I. LECTURA: IS 53, 10-11

SALMO RESPONSORIAL: 32

II. LECTURA: HEB 4, 14-16

EVANGELIO: MC 10, 35-45

ORACIÓN DE LOS FIELES

Dios nos ama y sabe lo que más nos conviene. Por eso, le presentamos nuestra oración confiada de hijos suyos.

- Por la Iglesia universal, para que en la escucha atenta de la Palabra continúe ensanchando su corazón para acoger a todos los hijos e hijas de Dios dispersos por el mundo. Oremos.
- Por los países empobrecidos que viven sumergidos en la violencia y la injusticia, para que el evangelio sea buena noticia transformadora de esas realidades y puedan avanzar en la mejora de su situación. Oremos.
- Por todos los que tienen responsabilidades de gobierno en los pueblos del mundo, para que la celebración el 17 de octubre del Día Internacional para la Erradicación de la Pobreza les lleve a poner en marcha todos los mecanismos necesarios para que no haya pobreza en el mundo. Oremos.
- Por los misioneros y misioneras, para que encuentren en la Palabra de Dios la luz para evangelizar a los pueblos. Oremos.
- Por los que estamos aquí reunidos celebrando esta Eucaristía, para que con la fuerza y alegría de nuestra fe contribuyamos a instaurar el Reino de Dios en nuestra sociedad. Oremos.

Dios, Padre nuestro, que nuestra oración y nuestra vida sea alabanza de tu gloria para que todos los pueblos contemplan el rostro de tu Hijo, Jesucristo. Él que vive y reina por los siglos de los siglos.

MONICIÓN DE OFERTORIO

Ofrecemos en primer lugar el pan y el vino, que se transformarán en el Cuerpo y la Sangre del Señor, para que la comunión con Él nos llene de espíritu misionero.

También ofrecemos un cirio para que su luz resplandezca en esta celebración, significando nuestro compromiso de dejarnos iluminar por la Palabra de Dios, que ella sea cada día “luz para nuestros pasos” y nosotros, a su vez, “luz del mundo”.

Finalmente ofrecemos la colecta, destinada a la Pontificia Obra para la Propagación de la Fe: es la ayuda fraterna y cristiana que damos para que la luz del Evangelio llegue a todas las personas y pueblos humanos.

DESPEDIDA

La participación en la eucaristía de jornada del Domund nos impulsa a vivir nuestro ser cristiano desde la perspectiva misionera. Sintámonos misioneros hoy de manera especial, con todos los hombres y mujeres que están haciendo vida el Evangelio en todo el mundo. Que nuestra labor misionera no se reduzca a un mero recuerdo de los misioneros el día del Domund, sino que nos unamos a todos ellos con nuestra oración constante y nuestra ayuda permanente

URTEAN ZEHARREKO XXIX. DOMEKEA (B) DOMUND 2009. - “Hitza, argi herrientzat”

SARRERAKO OHARRA

Jaun berbiztuaren mahaiaren inguruan batu gara. Bere inguruan batzen gaitu anai-arreba guztioz, pobre, apal eta nahigabetuei aparteko maitasunaz begiratzuz.

DOMUND eguneko ospakizun honek Elizea unibertsala dala ikusiazoten deusku, “Hitza, argi Herrientzat” goiburuan jasotzen danez, Jesusek, bere Berbeagaz, herri guztietan azaldu gura daualako. Bere agindua betez eta Espirituaren indarraz, Jaungoikoaren Erreinuaren Barri Ona transmitituko dogu, hitzez eta egitez, munduan eta historian zehar.

Bere Hitza entzunez, Jaungoikoak geure inguruan testigu izateko egiten deuskun deia entzun dagigula.

DAMU OTOITZA

Gizon eta emakume guztiak salbatu daitezala eta bere Semea ezagutu dagiela gura dau Jaungoikoak; Beragan jarten dogu gure fedea eta itxaropena.

- Jaungoikoaren Semea, errukitsua zara guztiokin. *Erruki, Jauna.*
- Munduaren salbatzailea, zeure bizia emon dozu gu salbatzeko. *Kristo, erruki.*
- Jaun berbiztua, herrien argi zara. *Erruki, Jauna.*

OHARRA IRAKURGAIRI

Geure egin dagigun Jaungoikoak gutako bakoitzari esaten deuskun Berbea. Hauxe da “herrientzako argia”; gizaki bakoitzaren eta herri bakoitzaren bihotzean dagozan itxaropen eta nahiak Kristo haragi egindako Berban beteten dirala ulertuazoten deusku. Bateoan jaso dogu fedearen argia eta liturgi ospakizun bakoitzean Jaungoikoaren Berbea entzuten dogu; horregaitik, geure ardura da argi hau gizaki eta herri guztietara eroatea, Jaungoikoaganako bidean aurrera egin dagien.

I. IRAKURGAIA: Is 53, 10-11.

ERANTZUN SALMOA: 32.a

II. IRAKURGAIA: Heb 4, 14-16.

EBANJELIOA: Mk 10, 35-45.

JAINKO HERRIAREN OTOITZA

Jaungoikoak maite gaitu eta badaki zer behar dogu. Horregaitik, seme-alaba lez Beragan konfiantza jarrita, gure otoitza aurkeztuko deusagu.

- Elizearen alde; Hitza arretaz entzun eta bihotz zabalaz jokatu dagiala, Jaungoikoaren seme-alaba guztiei harrerea egiteko. Egin dagigun otoitz.
- Indarkeriaz eta bidegabekieriaz jositako herrialde txirotuen alde; ebanjelioa barri on eraldatzaile izan daitela eurentzat eta euren egoerea hobetu daitela. Egin dagigun otoitz.
- Munduko agintarien alde; urriaren 17an Pobretasuna Deuseztatzeko Nazioarteko Eguna ospatuta, hori gauzatzeko baliabideak erabili dagiezala. Egin dagigun otoitz.
- Misiolarien alde; Jaungoikoaren Hitzean aurkitu dagiela herriak ebanjelizatzeako argia. Egin dagigun otoitz.
- Eukaristia ospatzeko batu garan guztion alde; gure fedearen indar eta poztasunaz gure gizartean Jaungoikoaren Erreinua eraiki dagigula. Egin dagigun otoitz.

Jaungoiko Aita gurea, gure otoitz eta bizieta zure aintzaren gorespen izan daitezala, herri guztiek zure Seme Jesukristoren aurpegia ikusi dagien. Errege bizi da-ta gizaldi eta gizaldietan.

OFERTORIOAREN AURREKO OHARRA

Jaunaren Gorputz eta Odok bihurtuko diran ogia eta ardaoa eskeiniko doguz lehenengo, Beragaz bat egitean, misiolari senaz bete gaizan.

Pazko-zuzia ere eskeiniko dogu, bere argiak argi egin dagian ospakizun honetan, gure konpromisoa sustatuz: Jaungoikoaren Hitzak argituta, Hitz hori "argi izan daitela gure ibilbidean" eta gu, aldi berean, "munduarentzako argi" izan gaitezana.

Azkenean, batutako dirua eskeiniko dugu, Fedearen Zabalkunderako Aita Santuaren Egintzan erabilteko: horixe da gure senide eta kristau laguntza, Ebanjelioaren argia gizabanako eta gizatalde guztietara heldu daiten.

AGURRA

Domund eguneko eukaristian parte hartzeak gure kristau izatea misiolari ikuspuntutik bizitzera garoaz. Sentitu gaitezana misiolari munduan Barri Ona bizi egiten diharduen gizon eta emakumeekin batera. Gure misiolari egitekoa ez daitela Domund egunean misiolariak gogoratzea bakarrik; bat egin dagigun eurekin gure etengabeko otoitzagaz eta laguntzagaz.